



8. FUNTZEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera atera ahal izateko, jarduera batzuk egin behar ditugu.

Lehenik eta behin, eta garrantzitsuena iruditzen zaiguna "Luzcleta" ekoiztea da. Lehen aipatu dugun bezala, kirol-mundura zuzendutako enpresa handiekin harremanetan jartzen eta aliatzen saiatuko gara, hala nola, orbea, bmw edo Corte Ingles.

Bigarrenik, erosleek gure berri izateko eta nolabait harremanetan jartzeko modua webgune bat sortzea da, gure enpresaren oinarrizko informazioa izango duena, hau da, nortzuk garen, zergatik eta zertarako sortu den gure enpresa eta zein den gure helburua epe luzean. Era berean, bizikleta estatiko bakoitzari buruz ditugun modeloei eta horien prezioari buruzko informazioa emango du ere.

Hirugarrenik, eta webgunea sortzearekin zerikusia duena, kontsumitzaileekiko komunikazioa ere bada, oso garrantzitsua dela uste baitugu, eta, horretarako, zuzeneko komunikazio-bideak erabiliko ditugu, besteak beste, posta elektronikoa, sare sozialak eta telefono-komunikazioa (deiak baita testu-mezuak ere). Gainera, epe luzeko harreman batera bideratuko da, eta, beraz, gure ahalegina ez litzateke izango berehalako onura bat lortzera bideratuko, baizik eta **elkarreraginean** eta **konfiantzan** oinarritutako bezeroarekiko harremana sendotzera.